


Jokamolde gizatiarren erretratuak



Sei istorio

Jatorrizko istorioen izenburuak: *The Human Element*, *The Letter*, *Rain*, *The Fall of Edward Barnard*, *The Force of Circumstance* eta *The Lotus Eater*

Egilea: William Somerset Maugham

Itzultzailea: Xabier Olarra

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Igel (Literatura Saila)

INMA ERREA

William Somerset Maugham idazle aski ospetsua da, baina haren obra eta bizitza ez dira agian hain ezagunak gaur egun. *Sei istorio* hau irakurtzen hasi nintzenean, ohartu nintzen ezer gutxi nekiela Somerset Maughamez, nahiz hari buruzko nolabaiteko interes lauso eta zehazgabea nuen. Irakurketak jakin-mina piztu zuen niregan.

William Somerset Maugham nor zen eta zer egin zuen jakin nahian, hainbat datu eskuratu nituen. Kasu baterako, 91 urte bizi izan zela, 1874tik 1965era, eta britainiarra zela, baina oso britainiar bitxia, Parisen jaio eta Nizan hil baitzen. Jakin izan nuen, baita ere, obra-kopuru itzela idatzi zuela, 1915ean bere lehen nobela argitaratu zuenetik, eta genero ugari jorratu zuela, hala nola eleberrigintza, antzerkia, artikulugintza, bidaiia-liburuak eta ipuingintza. 120 ipuinetik gora idatzi zituen, 10 bat ipuin-sortatan argitaratuak. Asko bidaiatu zuen, eta bere bidaien oihartzuna iritsiko zaigu liburu hau osatzeko Xabier Olarrak aukeratu eta euskarara ekarri dituen sei istorioetan.

Kontakizun hauek XX. mendeko 20 eta 30eko hamarraldietan idatzi zituen Somerset Maughamek. Guztiak Ingalaterratik kanpo girotuak dira, besteak beste, Chicagon, Tahitin, Ozeano Barearen hegoaldeko irlتان, Grezian, Malaysian eta Italian, baina guztietan protagonistak anglosaxoiak dira, dela kolonizatzaile ingelesak edo estatubatuarrak dela Britainia Handitik europar kontinentera aldatutako bidaiariak.

Istorio hauek, bestalde, badute beste hainbat ezaugarri komun. Horietako bat da pertsonaien eta lekuen deskribapen fisiko zehatzak. Pertsonaien kasuan, deskribapen horien bidez zedarritzen ditu maiz egileak haien profil psikologikoak, nortasuna eta jarrerak.

Istoriei darien sentsualitatea da beste ezaugarri bat. Idazleak zehaztapen handiz margotzen ditu pertsonaien grinak, zirrarak eta sentipenak –batik bat, amodiozko harremani dagokien orotan–, eta, bestalde, bada ipuin hauetan halako mira bat naturarekiko, eta batez ere, paisaia eta paraje exotiko edota basatiekiko.

Horren aldean, melodramatik ezer gutxi topatuko dute irakurleek kontakizunetan. Gertaera latzenak kontatzerakoan ere, tragikotasunak ez du lekurik Somerset Maughamen lanotan.

Idazleak zenbait balio kontrajartzen ditu kontakizunetan: zoriona eta handinahia, tolerantzia eta zorrozkeria, edota itxurak gordetzea eta modu libreago batez bizitzea.

Somerset Maughamek arrakasta handia lortu zuen irakurleen eta salmenten aldetik, baina bere garaiko kritikariek gogor juzkatu zuten. Idazleak berak bigarren mailako idazletzat jo zuen bere burua inoiz, metafora poetikoa baliatzeko trebezia eskasa zuelakoan-edo. Izan ere, idazlearen estiloaren ezaugarri nagusia prosaren soila da.

Azkenik, Maughamen istorioek iragan hurbileko garai eta gizarte-mota jakin batzuk islatzen dituzte, ñabardura askorekin islatu ere, eta horrek, egungo ikuspegitik, beste koska interesgarri bat eransten die.